



IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO **MUGIKORTASUN PROGRAMARAKO DEIA,** **EUSKO JAURLARITZARENA 2026**

Deialdiaren helburua:

Ikerketa-zentroetan dedikazio eskusiboarekin egonaldiak egiteko laguntza-deialdia egitea, norgehiagoka-erregimenean, bi helburu hauek betetzeko: batetik, I+G+b zentro eta organismoetako ikertzaileen eta unibertsitateko irakasleen mugikortasun geografikoa bultzatzea, eta, bestetik, ikertzaile-taldeen lehiakortasuna eta gaitasuna hobetzea.

Egonaldian zehar, ikertzaileek ikerketa-proiektu bat garatu beharko dute, zeina talde hartzailearen lan-ildoan integraturik egongo baita, edo, bestela, goi-mailako lotura eta trukeak ezartzera bideratutako jarduerak burutu beharko dituzte.

Modalitateak:

- A modalitatea: ikertzaile seniorren mugikortasuna, langile iraunkorrei zuzendua.
- B modalitatea: ikertzaile juniorren mugikortasuna, langile ez-iraunkorrei zuzendua.

Destinoko zentroak:

- Honako hauek izan daitezke destinoko zentro: laguntza-eskabideak aurkezteko proiektu zientifikoaren arloan, prestigio akademikoa eta ikerketakoa aitortua izanik ikerketa-funtzioak esleiturik dituztenak.
- Destinoko zentroek, betiere, eskatzen dute hautagaiak bizileku finkoa aldatzea, onartutako mugikortasun-aldi guztian.
- EAEtik kanpo kokatuta egon beharko dute destinoko zentroek.

Egonaldien ezaugarriak:

- Egonaldiak 2026ko **urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra** bitartean hasiko dira.
- Egonaldiak gutxienez 2 hilabetekoak izango dira, eta gehienez 6koak, etenik gabe egin beharko direnak. GARRANTZITSUA: eskabidean adieraziz gero egonaldia sei hiletik gorakoa izango dela, ezetsi egingo da eskaria zuzenketarako aukerarik eman gabe, nahiz eta sei hileko egonaldia eskatu.
- Ikertzaileko, egonaldi-proiektu bakarrerako izango dalaguntza.
- Proiektua destinoko zentro bakarrean egingoda.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- A modalitatea: langile iraunkorra izatea edo kontratu mugagabea edukitzea; besteak beste, agregatua edo titularra izateko akreditazioa duten irakasle atxikiek.
- B modalitatea: langile ez-iraunkorra izatea. Indarrean den loturaren iraunaldia gutxienez mugikortasuna amaitu artekoa izan behar da. Modalitate honetako eskakizuna da langile eskatzaileak irakasle- eta/edo ikertzaile-lanpostu bat izatea kontsolidazio bidean. besteak beste, akreditaziorik ez duten irakasle atxikiek.

Zehazki, programa edo kategoria hauetako langileak onartuko dira: Ikerbasque Research Fellow programa, irakasle laguntzaile doktorea, irakasle atxikia, Ramon y Cajal programa, Juan de la Cierva programan sartzea, Miguel Servet programa.

Baldintza orokorrak:

- **Zerbitzu aktiboan** egotea egiaztatutako lan loturan, funtzionariala nahiz kontratuzkoa izan. Hautagaiak erakunde eskatzailearekiko duen lan loturak egonaldi osoan iraun beharkodu.
- **Doktorea izatea 2021 baino lehenagotik.**
- Gutxienez **bi urteko antzintasuna** izatea UPV/EHU n.
- Programa honetatik zein antzeko ezaugarriak dituen beste edozeinetatik laguntzarik, ikerketa-zentroetan egonaldiak egiteko 2024an edo 2025ean, jaso ez izana.
- UPV/EHUko ikertzaileek laguntza horiek jaso ahal izango dituzte, betiere ikerketa-talderen batean egon (**GIC**) eta talde horrek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen «A» edo «B» taldearen delako errekonozimendua jaso eta **indarrean** badu.

Baldintzak eskaera aurkeztu den unean bete beharko dira, bai eta egonaldia hasten eta bukatzen den egunean ere.

Eskabideak aurkezteko epea:

2025eko abenduaren 23ra arte (egun hori barne)

GARRANTZITSUA: Ikerketa errektoreordearen sinadura elektronikoa

Eskaria epez eta formaz aurkeztutakotzat jo dadin, Ikerketa Errektoreordetzaren sinadura elektronikoa izan beharko du.

UPV/EHUko eskatzaileek 2025eko abenduaren 19ko 14:00etara arte aurkeztu ahal izango dute eskaria. Ezin izango da balioztatu epe hori amaitu eta gero aurkeztuko litzatekeen eskaririk.

Aurkeztu beharreko agiriak:

Beherago zehaztutako agiriak jaso behar dira eskabidean:

- Egonaldian zehar egingo den ikerketa-proiektuari buruzko memoria.**
Gehienez 3 orri.
- Hautagaiaren **CVa**, inprimaki normalizatuan.
- Zerbitzu-orria.** Irakasle atxikiek, irakasle agregatu edo titular izateko akreditazio kopia aurkeztu beharko dute.
- Ikerketa jardueraren aldi baterako etena** justifikatzen duten **egiaztagiria**k, 6.2.b. artikuluan jasotako kasuen arabera (iraupen luzeko aldi baterako lan ezintasuna, amatasuna, aitatasuna, edoskitzaroko arrisku egoera, umeen adopzioa edo harrera).
- Talde hartzailearen historia zientifikoa eta akademikoa**, zeinetan jasoko baita ikertalde hartzailearen arduradunaren azken sei urteetako CVa.
- Laguntza jasoz gero, **ikertaldeko arduradunaren konpromisoa**, eskatutako epealdian hautagaia bere taldean onartzekoa.
- Hautagaiari lizentzia ematea edo eskabidea erregistratua.
- Hautagaiari zein ikertzaile-talde hartzaileko arduradunari dagokionez, ikerketa-jardueraren kalitatearen adierazleei buruzko laburpen eguneratua** (argitalpen zientifikoak, ikerketa-proiektuak, biltzarrak, tesiak, patenteak). Aplikazioak dokumentu horien txantilo bat du.

Eskaria egiteko prozedura:

Eskabideak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza



Sailaren egoitza elektronikoan:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2026/ikermugikortasuna/web01-tramite/eu/

UPV/EHUko IKERKETA ERREKTOREORDEAREN SINADURA LORTZEKO PROZEDURA:

EPEA	IZAPIDEA
2025eko abenduare n 19ko 14:00ak arte	Erantzukizunpeko aitorpena beteta bidali, hautagaiak sinatuta, hona: pre-postdoc.dgi@ehu.eus (Webgunean eskuragarri dago txantiloia). <u>Barne dokumentu bat da, ez da aplikaziora igo behar.</u> Online eskaria bete eta beharrezkoak diren dokumentuak aplikaziora igo. <u>Eskaera itxita egon behar da, Ikerketa errektoreordeak digitalki sinatu dezan.</u> Epe horretatik kanpo itxitako eskaerak ezin izango dira sinatu. Eskatzaileak eskaria eta aplikazioan sartutako gainontzeko dokumentazioa (PDF formatuan) bidali behar ditu hona: pre-postdoc.dgi@ehu.eus, mezuaren gaia atalean "Ikermugikortasuna 2026" adierazi behar da. Deialdian adierazitako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak ez dira baliozkotuko.
2025eko abenduaren 23a	Ikerketa Errektoreordetzak eskariak aurkeztuko ditu Errektoreordearen sinadura digitalaren bitartez.

Informazio gehiago:

Hauek dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- **IFK:** Q4818001B
- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, z/g, posta kodea: 48940, herria: Leioa (Bizkaia)
- **Ordezkarri legala:** Juan Ignacio Umerez Urrezola, kargua: Ikerketa Errektoreordea.
- **E-mail:** pre-postdoc.dgi@ehu.eus

UPV/EHUrekiko harremana:

- Tfno.: 946018008
- E-mail: pre-postdoc.dgi@ehu.eus (gaian hau jarri: IKERMUGIKORTASUNA 2026)